

Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko urriaren 17an** eguadiako hiruak eta laurden direlarik **aparteko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE
ITSASO LUJANBIO APEZETXEA
MARIA JOSE AIZPURU SANTESTEBAN

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezkari idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

1.-ZUBIMUXU ATERPEKO ZERBITZUA KUDEATZEKO, ZERBITZU EMAKIDA KONTRATUA, ALOKAIRU BIDEZ ESLEITZEKO ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN ONARPENA ETA ESLEIPEN MODUAREN ZEHAZTAPENA

Zubimuxu Aterpeko Zerbitzua kudeatzeko, zerbitzu emakida kontratua, alokairu bidez esleitzeko arautuko duten baldintza administratiboan eta teknikoan plegua aurkeztu zaio Udalbatzari.

Udalbatzak plegua aztertu ondoren aho batez erabaki du:

1.-Zubimuxuko Aterpeko Zerbitzua kudeatzeko, zerbitzu emakida kontratua, alokairu bidez arautuko duen klausula administratiboan eta teknikoan baldintza plegua onartzea, aldi berean esleipen modua, Kontratu Publikoan 2/2018 Foru Legearen 80 artikuluan arautzen den prozedura erraztua izango da

2.-Esleipen prozedurari hasiera ematea, dagokion izapidetzak eginez

2.-UDAL HILERRIAREN ERABILERA ETA HURA ERABILTZEKO ETA HARTAN ZERBITZU EGITEKO ESKUBIDE ETA TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. Hasierako Onarpena

Goizuetako Udalbatzak aho batez erabaki du, Udal Hilerriaren erabilera eta hura erabiltzeko eta hartan zerbitzu egiteko eskubide eta tasak arautzen dituen ordenantza aldatzea, ondoren zehazten den moduan:

1.-Hasiera batez onestea, Udal Hilerriaren erabilera eta hura erabiltzeko eta hartan zerbitzu egiteko eskubide eta tasen tarifak aldatzea. Tarifa berriak hauek dira:

Lurrean ehorztea:

Goizuetan erroldatuak: 160€ (hildako momentuan herrian erroldatua, errolda agiriarekin egiaztatuko da)

Goizuetan jaiok: 200€ (jaiotza agiriarekin egiaztatuko da)

Besteak: 400 €

Errautsak:

Goizuetan erroldatuak: 25€ (hildako momentuan herrian erroldatua, errolda agiriarekin egiaztatuko da)

Goizuetan jaiok: 50€ (jaiotza agiriarekin egiaztatuko da)

Besteak: 200€

2) Akordio hau jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertzeke aukera izan dezaten.

3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada arestian aipatutako epean, hasierako onespén hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4) Erabaki honek 2018 urteko urtarrilaren batean hartuko du indarra

Arratsaldeak laurak hamar gutxi direnean alkateak bukatutzak eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut